

## BATASUNAREN ALDEKO ARESTIREN GUTUNAK

*Iruñea, 1983-VI-24*

*J. M. Satrustegi*

Hogeitabi urte zituen G. Arestik lehenengoz N. Tauer euskaltzaleari idatzi ziolarik. "Nik bedorri idaztea behar bada, ausartzia haundia irudiko zaitzu nauski", aitortzen dio apalki. Hizkuntzak ikasteko harra zuen barnean sartua eta txekera nahiz hungaroaren gramatikak eskatzen dizkio. Horrela sortu ziren 1956.eko maiatzean, hamabost urte iraun behar zuten bien harri-manak. Zehatzago esateko, 1971.ekoa da Tauer-ek bilbotarrari zuzendu eta, itxuraz, erantzunik gabe gelditutako azken eskutitza.

Bien arteko dozena pare bat gutun eskuratu nituen, beste askoren artean, 1982.eko udazkenean Pragara egindako joan-etorrian. Hauetatik hamaika Arestirenak dira, eta Tauer-enak beste hamahiruak. Idazkeraz, ez dira berdinak. Arestik bizkaiera erabiltzen du batzutan, baturantz jotzen du gehienetan eta, maila honetan ere, hasieratik azkenengora bada diferentzia. Lau gutun eskuz idatziak ditu olerkariak, lau makinaz, eta beste hiru kopiak dira, ez bait nuen hauen orijinalik aurkitu.

Txosten labur honetan sartzeko gehiegi direnez, banatu egin ditut. Gaia kontutan harturik, Euskaltzaindia eta euskaltzainak aipatzen dituzten idazkiak batean emango ditut; eta bere biziari buruz emandako berriak, nahiz literaturari zuzenean dagozkionak, beste lan batean agertuko dira.

Lehen gutunaren gaia bi multzoetatik kanpo gelditzen da, aurkezpenak mugatzen bait du giroa. Hala ere, abiada adierazten duenez, bere garrantzia badu eta, idazkera aldetik, bilduma honetako zaharrena da. Horregatik sartu dut txostenean.

Gutunaren berezitasunak hauek dira: makinaz idatzi zuen eta eskuz izenpetu. Hegazkinez bialtzeko erabili ohi den paper arinean dator eta orriak puska kendua du. Izenaren lehen hizkia eta abizena bereizten ditu eta denak minuskulekin emanak dira. Gero ikusiko dugunez, batzutan *garesti* izenpezen du; hitz batez, alegia.

Honela dio, hitzez-hitz, Aresti gaztearen eskutitzak:

Bilbon, 1956-Maiatze-31an.

Norbert Tauer iaunari, Pragara.

Nire iauna:

Nik bedorri idaztea behar bada, ausartzia haundia irudiko zaitzu nauski. Baina hain hospetsua da gaurko egunean bedorren izena euskaldunon artean, zer badirudi guk guztiok dugula bedorri iotzeko eskubidea.

Utzit lehenik aurkez dezadan nire burua: bilbotar naiz, euskaldun berria, Gabriel Aresti izeneko. Bedorrek behar bada ezagutuko nau izenez, zer bospasei lan-txo egin baititut euskeraz, eta argitaratu Eusko-gogoan eta Ameriketako beste erre-  
vista batzutan.

Mesede bat eskatu nahiko nioke: bedorren ama-hizkuntza ikasi nahiko nuke, eta hemen Espainian ezin tapatu dezaket metodu apropos bat; beraz guztiz eskartuko nioke bidali balit hortik txekozko metodu Ollendorf edo Berlitz bat, edo zerbait antze-  
koa. Ingles, frantzes eta aleman dakit, eta eztit ardura beraz hizkuntza erakuslea hau-  
tarik bat izatea. Posible balitz, hungarozko bat nahiko nuke, Lajos Zilahyn hizkuntza  
Ikasteko.

Pagatzeko ez tut uste izango dela posible eta ez komeni, dirua horra bidaltzea, baina igorriko dizkiot truke, gura badu, hemengo euskal edo erdal liburu batzuk, bedorrek nahi dituenak.

Beste gabe, hemen nagokio prest edozertarako.

g. aresti.

Praga'tik 1956'gko Garagarrillaren 21'ean.

**Idazkilario naiz-idazki au 178 garrena da**

Aresti'tar Gabirel jaunari.

*Bilbo'n.*

Nere adiskide maitea:

Joan den illaren 31'gko zure euskerazko idazkia artu dut eta pozik zurekin elkar-idaztean sartzen ari naiz. Zure izena, euskal-idazle ta olerkari aspetsuarena bezela, aspalditik ezagutzen dut. Zure olerki eder-ederrak Euzko Gogoa'n irakurri ditut eta asko gustatu zaizkit.

Zure idazkitik ikusten dut gure izkuntza ikasteko asmoa duzula. Zure eskaera betetzeko, batean, impreso certificado bezela, bialtzen dizkizut:

1. Sedláček: Lehrbuch der tschechischen Sprache ta
2. Boronkay: Einführung in das Ungarische.

Nire ustez liburu biak zuretzat egokiak izango dira gure ta Hungria'ko izkuntza-  
ren astapenak ikasteko.

Liburu bien saria 18,20 korona da, eda gutxi gora bera 30 laurleko.

Nere aldetik eskatzen dizut niri Menendez Pidal'ek egindako liburu berri bat bialtzeko, euskeraren edatzeari buruzko mapa bat dakarrena. Liburu onen izena ez dakit. Instituto Americano de Estudios Vascos 'en Deian agertzen den "Las Fronteras del Euskera en las diversas épocas" izeneko irakurgaiaren idazleak aitutzen du liburu berri du. Idazki onen barnean bialtzen dizkizut liburu arri doazkon lerroak. Bialtzearengatik aurrez nere eskerrik onenak ematen dizkizut.

Onar itzazu, adiskide ona, nere agurrik beroenak eta agindu nai duzun guzia zure menpeko.

Tauer'tar Norberta'ri.

Baionako biltzarraren ondotik (1954), beste bilkura batzu egin ziren Arantzazun eta, egia esateko, oso gutxi dakigu 1956.eko batzarre horietaz. Euskaltzaindiak ez zuen gertakizun horien agiririk jaso eta bertan zirenek ere ez zieten zabalkunderik eman. Hori dela eta, Arestiren berriek garrantzi berezia dute. Urte horretako abenduan idatzitako gutunean xehetasun jakingarriak dakartza, bere ikuspegitik sortutako gatz eta piper bereziarekin.

Lehen eguneko pasaizo nagusia erdalkadarena da. Haserrez dardarazten omen zeuden entzunle batzu, hizlarietara euskararen arazoak erdaraz azaltzen ikustean. "Debekatu genuen aurrerantzean euskal Biltzarretan erderarik egitea", aitortzen du berak. "Egia garrantza da..., eta egia dioenak eztauka edukantzarik. Gurago dut egia, besteen eritzi baldarra baino."

Bigarren egunean beste bide bat hartu zuen eztabaidak. Euskararen etorkizuna larria zela ikusirik, gure hizkuntza ikertu eta aztertu beharra besterik ez omen zitzaion gogoratzen hizlariari. Ateraldi honek eta gero agertutako eritziak, esaldi oso zorrotzak aterarazten dizkiote idazleari. Bizitasun haundiko lerroak dira bereak.

Dirudienez, iraileko biltzarrearen ondotik beste dei bat egin zuten eta urrian berriz elkartu omen ziren. Zaitegi eta batzartuen arteko eztabaida garrantza azpimarratzen du Arestiren eskutitzak, "oraindio gorritzen baitzaizkit lotsaz eta ahalkez matelak haren oroitzapenean".

Zoritxarrez, gutun luze honen orijinalik ez nuen aurkitu. Nekez irakurtzen zuen, itxuraz, Tauer jaunak Arestiren eskuizkribua eta makinaz kopia bat atera zuen berak. Hori dela eta, hutsune batzu aurkitzen dizkiot eta, batzutan, berak ere zalantzan uzten ditu zenbait hitz eta esaldi. Dauden era berean utzi ditut nik eta ohartxoren baten bidez zuzenketak egin.

Bi orriko paper mehe eta arinean dator eskutitza. Izena, Garesti, makinaz idatzirik dago, kopia bezala, eta barkamen eskatzen dio egileak eskuz izkribatzeagatik.

Hona zer dioen:

Bilbon, 1956 Abenduko 19an

Nere jaun prestua:

Errazebitu nuen zure azken tarjeta, eta alaso eskertzen dizut gabon eta urteberri zoriontsu batzuk gutziazten dizkidazulako. Uste nuen zure azkenari erantzun niola, baina ez naiz oroitzen segurutik, nere burua txar-txarra baita: baina denpora alperrik pasatzen utzi baino lehen, azken honeri ihardetsten (1) laster egiten dut.

Gainera asti gutxi dakat, ze bizi garen parabisu urdinean, asko lan egin behar dugu, gutxi jateko. Endemas (...) nire ikaskizunak eta eskribuak aurrera atera behar ditut, eta honek antsia guztiak kentzen dizkit.

Arantzatzun egin genituen euskaltzaleak biltzarrak birritan: lehenbizi Irailean, gero Urrian/edo Zemendian/, ez naiz alkordatzen. Nere Aitak beti dio hau: euskaldunak elkarrekin konforme ezkaudela ikusita gero, se levanta la sesión. Bueno, erderaz dio, berak euskerarik ezpaitaki. Ainbeste buru, ainbeste aburu.

Eta beste gauza bat, Bilbotarrak eta Arantzatzuko fraileki batzuk zeunden bazterrean, haserrez dardaratzen ziren, entzutean nola euskaldun jator batzuek, Aita O. frantzeskorak, eta Aita X. jesuistak bereziki, baztertzen zuten bere hitzaldietan gure hizkuntza maitatua, estakurua eginda gero, eta jotzen zuten erderara eta Balentinek eta biok/Aurraitzek, alegia/debekatu genuen aurrarantzean euskal Biltzarretan erderarik egitea. Egia garratza da, eta labio, esan zuen lehenagoko paramiloguak. Eta egia dioenak eztauka edukantzarik. Gurago dut egia, besteen eritzi baldarra baino.

Hau izan zen Euskaltzaindiak antolatutako batzarreko lehenengo egunean. Bigarren egunean Ibar zen mintzatzeko. Apaiz eskolapio hau, bera gizon jakintsu eta zentzuduna, eztaikit nik nondik dabilen eta zer gura duen. Bere aurpegi argalarekin, batek pentsatzen du Wilderen esfinjea bezala dela: eztuela bat ere enigma gordetzen. Baina sakonago begitzen bada, bat konturatzen da zer-edo-zer dagoela hondarrean. "Hil edo biziko hauzia" titulatu zuen hain jatorki euskeraz bere mintzaldia. Gizagai-soa (2) odolezko izerdia bota zuen aurreneko egunean. Aurrek eta biok gure ateraldi-txoa eduki genuenean, eta hain larritu zen koitadue, zer mahainburuari/Mitxelena euskaltzaina, noski/eskatu zion, aitzakia mehe bateki bere berbaldia eragozteko.

Katedrara igon zuenean, esan zuen gure gainean, zer-edo-zer barkazioa eskatzeko asmoarekin edo, eta laster aitzakia baten ondoan jo zuen erderara. Bere hitzaldia, duda gabe, garrantzia handikoa izan zen. Salatu zuen euskera hil-zorian dagoela, eta gero, itzul-inguruetan ibilli bazen ere, esan zuen aztertu behar dugula, hil baino lehen, eta bildu bere erlikia guztiak. Nik aitaren eta semearen askotan egin nuen. Gizon hura (3) larretu gabe ikusten zuen gure nortasunaren ezagugarria eta otutzen zaion bakarra hauxe izan zen: ikertu eta aztertu.

Aiteak (4) galdu nituen: Esan nuen Bizkaian behintzat euskera gurekin hilen dela. Zergatik Bizkaian jende gazteak jakin-arren, ezto egiten euskeraz, eta gerra-osteko genderezioak jakin ere ez tute egiten.

---

(1) Ihardesten.

(2) Gizagaisoak.

(3) Iluna da esaera hau. "Gizon *harek* larritu gabe ikusten zuen...?"

(4) *Aiteak*. Ulertu ez duelako ezaugarri bat ipini dio eta azpimarratu, Tauer jaunak.

Akabatu nintzanean beste bat aitzatu (5) zen mintzatzera Sejjo Zarrandikotxea, agure bat, euskerari buruz liburu bat idatzi ta daukana, euskal herriaren orijinak bilatuz, hainbeste txotxolakada ezituen Gardiel Ponzelak berak bere liburu guztietan esan; esan zuen berak hemerteri iloba zeduzkala eta denak euskaldunak eta hil artean, gutxienez etzela euskera hilgo inola ere.

Hori da gure kaltea. Lafittek ongi adi-arazi zuen: han Frantzian, gutxi egingo dugu baina gertatzen ditugun bazkariak haiek eztira makalak. Estriminuek dioten bezala, gure etxean jan eztugu egingo, baino barre egin, hori bai, ugari!

Urrileko lehenengo domekan, urte guztietan bezala, euskal klaseek urteroko eskursioa prestatu zuten Urbiara. Arratsaldean, Santuarioko organua inauguratzen zen eta kontzertua ondoren, Peli Ugalde Aretxabaletarra etorri zitzaigun, Alpontsori eta biori, esaten beste biltzar bat antolatu beharko genuela, lehenengoa antolatu genuen legez, euskal idazleen elkartadea lortzeko. Peli hori, Zaitegi abadearen lehen-gusu bat da, bere lehenegusina batekin ezkondua. Handik hamabostera, euskaltzale guztieri geitu (6) genien, eta Arantzatzun talde egoki bat batu zen. Mahaietan eseri ziren, buru Villasante frantzizkanua, alboan ezkerrean Aita Intza euskaltzaina eta eskuinan Zaitegi, eta bazterretan azkenean Irigoien eskuina, Zaitegiren aldean eta bestean Zinkunegi idazlea. Esan zuen Villasantek, nere bizitzan ezagutu ditudan gizonetarik apalenak, Irigoienek eta Zaitegik mozio bana aurkeztu nahi ziotela batzarrari. Biak ziren adineko, zentzukoak, neurtuak eta komenigarriak: Irigoienek, aurrenez Bilbon lasaiki kontsideratu genuenak, errealidadeari hobeki erantzuten zion; hemen bizi garenari zigorrak naharo eman baitigu eskarmentu franko.

Zaitegi jauna berriz Ameriketatik etorri berria da, sinisten du berak libertadean, edo berak dioen bezala, azkatasunean, han gozatzen den libertadean ohiturik, honera etortean eztu ukusi arlotetatik (7) dingilizka urkatu bat ere, eta horregatik amets-kimeretan abiatu da, edegi nahi ditu euskal-idazleen etxe baten ateak, eztakit nolako asmoekin edo zertarako. Baina mozioak alde batera utzirik esango dizut zer pasatu zen gero, araindiko gorritzen baitzaizkit lotsaz eta ahalkez matelak haren oroitza-penean. Zergatik Irigoienek eta Zaitegi (8) ezin ikus dezakete elkar, badakit zergatik, eta Zaitegik agindu zion Alpontsori isiltzeko, esan zion bera etzela inor. Euskaltzaindiaren morroi bat baizik; Aita Intzari berriz, hau jaiki baitzen jenioak naretzeko asmoarekin, gizon buru-zuriak eztaukatela batere zuhurtzia, gero Irigoieri (9), defenditu zuelako agureen zuhurtzia eta eskarmintua, deitu zion hipokrita eta abar, eta abar. Esan zuen karta bat bidaliko zigula bakaitzari (10) bere asmoen esplikazioarekin, baina eztakit zoritxarrez edo zorionez eztigu igorri. Bilbon eztugu gure asmoekin aurrera segitu, nagiak garelako, eta bide batez Azkue zanaren amenaldia gertatzen hari garelako.

Hurrengo baten esango dizut zer izan den/hile honetako hogetamarrean eta errege-egunean izango baitira jaiak/. Eskari bat: zurean esan ezaidazu zure hizkuntzaren berri batzuk, ea egia den hil zorian aurkitu dela eta nola altzatu duen burua.

---

(5) Altzatu.

(6) Deitu.

(7) Arboletatik.

(8) Zaitegik.

(9) Irigoieni.

(10) Bakoitzari.

Beste gabe agur. Barkatu ezaidazu eskuz eskribatzea, eta zure kartaren zai zure zerbitzaria nauzu

Garesti

P. S. Eguberri on eta urteberri zoriontsua.

Esandakoetan agertzen da egun haietako zenbait harremanen garratzasuna. Pertsona batzuren izpirituan zauri sakonak utzi zituen batzarrak, eta bizirik diraute. Oraintxe bertan, hogeitasei urteren buruan, jaso berri ditugu gataska haren oihartzunak. Aita Intzak egunkari bati agertu dionez, gazte batek modu txarrean ihardun omen zion Arantzazun, zahar baten eritzia besterik ez zela esanez (11). Arestiren testiguantzak beste ikuspegi bat ematen du. Historia da eta alderdi bietako berriak jasotzea aberasgarri dela uste dut.

Bizkaian egiteko antolatzen ari ziren biltzarraren berri ematen dut 1957.eko beste eskutitz batean. Ordu arte izan dituzten traba eta eragozpenak kondatzen ditu, egoera politikoaren lekuko. Euskaltzaindiari dagokionez, euskaltzain berrien izendapenak aipu ditu, berea barne dela, eta hitz gogorraz ditu euskaltzaleen jokabideaz: "Nik pentsatzen dut, dio berak, euskaltzale guztiak ergel batzuk garela, eztaukagula zentzurik batere". Euskararen salbatzeko egiten diren ahaleginak ahulak direla salatzen du.

Aita Berriatuarentzat ditu goresmen-hitz benetazkoak. "Gure artean nondik dabillen dakien bakarra, eta nola zuzeneko bidetik dabillen, inork eztio hori barkatzen, eta denek diote ergel bat dena, izanik / nola dan / euskaltzaleen artean zentzudun bakarra".

Egoeraren azterketa honetan, Bizkaia du begien aurrean. Bilboko kapitalismoa jotzen du gure hizkuntzaren etsai bakarra, "eta gañera, klaro, Madrileko zer hori, izenik eukiteko eskubidea eztaukana". Euskara ez zela beharrezkoa ikusten du, ogia erdararekin irabazten dela eta gainera euskara ez omen da atsegina.

Liturjiaren itzulpenak egiten ari ziren une hartan, eta arazo honi buruz ere bere eritzia ematen du. Elizaren jokabidea gaitzesten du, bere irakaskintza hizkuntza arrotzetan egin izan duelako eta, bere ustez, eliza eta komentu guztiek atak itxiko balituzte euskaldunek ez omen lukete beren kristautasuna aldatuko.

Gutun honen bi kopia aurkitu ditut. Lehenengoa, erdizka aldatua eta hutsune askorekin. Eskuz zuzenduak ditu gauza asko. Bigarrena osoagoa, baina huts ugari badu hala ere. Hau hartu dut eredutzat.

---

(11) Aita Intzaren elkarrizketaren pasartea: "¿Qué opina del euskara batua? No hay tal batua. Cuando yo regresé de América hacia 1950 asistí a una asamblea extraordinaria de la Real Academia de la Lengua Vasca en Aránzazu. Fue la primera vez en la que oí con mucha extrañeza cómo dos oradores abogaban por la unión de todos los vascos en base a la unificación del euskara por medio de la H... Rápidamente me levanté y expresé mi discrepancia porque en los últimos 200 años nunca la H había estado presente en nuestro idioma. Un chico me replicó de malas maneras que eso era tan sólo opinión de un viejo. Yo no dije nada más" (DEIA, 1983, abuztuaren 7an).

Bilbon, 1957, Iraileko 3ean.

Norberto Tauer jaunari, Pragara.

Nere jaun estimatua:

Zure azkenengo postala garaiz allegatu da gure eskuetara. Oraindik nitzaz oroitzen zarela/ni hain ardura-gabea izan arren/jakiteak asko poztu nau.

Hemengo berri batzuk igorri nahi dizkizut esperuan nagoelako oraindik maiteko duzula errezipitza. Uda delako-edo, jenteak eztu lan gehiegi egiten, gehienak herrietan, berotasunez aldatzeagatik, daudelako.

Aurten ere Biltzar bat egingo da, ihaz Arantzatzun egin zanaren antzekoa bider honetan Bizkaian, Durangon-edo. Bizkaiko gobernadoaren (12)zai gaude, zeren azkena hil zenetik honera gobernadore gabe egon gara Bilbon, eta horregatik egon gara orain arte kangresuko gora-beherak erabaki gabe.

Euskaltzaindiak orain hogetalau urgazle berri izendatu ditu. Lehendabizi Orixe numerozkotzat. Ixaka Mendizabal deduzkotzat eta Urkijoko kondea/RIEV aldizkariaren zuzendariaren iloba/ urgazle. Eta gero hurrengo hilean beste hogetalaurak. Hauen artean gogoratzen naizenen izenak esango dizkitzut: Alfonso Irigoien/inork merezi izan baldin badu, izendatzea, hau da/ Josu Arenaza, Bilboko medikua, Moko-roa eskolapioa/Ibar/, Aita Zabala jesuita, beste jesuita bi: Etxeberría eta Mujika, gero beste fraile-apaiz batzuk, Donostian Txillardegi eta Dolores Agirre; azkenean guztirik apalena ni ere. Aita Jakoba Onaindia ere bai/Orain Zornotzako Larrean dago nagusi hau/eta Irunen Valentin Berriotxoa ania salletarra/beatu martiria ez/eta Loidi Bizkarrondo. Besterik etzait akordura etorten.

Nik pentsatzen dut euskaltzale guztiak ergel batzuk garela eztaukagula zentzurik bat ere. Gure aurrean ikusten dugu nola hiltzen zaigun hizkuntza eta ezugu egiten aleginik salbatzeko, eta norbait (13) ezer egin nahi duenean beste guztiak haren kontra (14) izugarri batekin zirria, ezpata baina zorrotzagoa, bomba atomika baino askoz indartsuagoa, beti burlaka eta zirika.

Adibidez hor dago Aita Berriatua gure artean nondik dabillen dakien bakarra, eta nola zuzeneko bidetik dabillen, inork ezti hori barkatzen, eta denek diote ergel bat dena, izanik/nola dan/euskaltzaleen artean zentzudun bakarra. Zuk ezin imajina dezakezu nolako hiltzori hertsian dagoen euskerea. Nik askotan egiten ditudala nire joan-etorriak Bizkaiko herrietatik badakit ongi nola Aita Imanolek ere badakien.

Pasaturiko egunean Zornotzako hauzo botera joan nintzen hango jaiak zirelako, San Antolin. Hangoa da nire aitaren familia, eta han dauden geienak ezagutzera joan nintzen, baita ere nire (15) datorren etxea. Bospasei etxe baizik eztago baserrian, eztago eskolarik baina jente gazteak gurago du erderaz egitea, euskeraz baino. Jose Martin nere lehengusuak ere, soldautzara joan ezpada ere, honela esan zidan; bana nik tinko eutsi nion euskerari, ta nai-ta-ez euskeraz eragin nuen.

Orain Bizkaiko jente geyenak laborantzeari itzi deutsa. Baserriko gobernuan bakarrik enbrak geratzen direz, gizonetakoak barriz fabriketara doaz. Orain arte

(12) Gobernadorearen.

(13) Norbaitek.

(14) Zuri utzia zuen Tauer-ek hitza ezin ulertuz. *Amorru* edo horrelakoren bat zitekeen.

(15) ¿Familia?

euskereak irauñ badau ezelango ofizialeko laguntasun barik, izan da baserritarra lurrari, soloari lotuta egon dalako. Len atxurretan eta (...) zabizan arloetan, orain pinuak landatu dabez: eztago bape atxaki euskerari eusteko. baserriko gau aspergariak baino gurago dabez Zornotzako edo Galdakoko (16) zineak jantzan egin baina oba da baltsugoa, Zornotzako Plazan edo Bilboko Gazte-Lekuan edo (...). Nik Bizkaiko euskaldunak millaka ezagututen dodaz, eta orain arte euskaldun garbi /erderaz ezta kitenak/ bakarrik topau ditut. Akats hau zuzentzeko bidea badago, eta batek/indirektoki/hasi du Elorrión. Euskal baserritarra berez komunista da /alkarzialea/kooperativista-edo. Auzo-lanak betidanik egin dira hemen. Quieren hacer cooperativas de trabajo, Andoni Espartak Trojas de Elorrio fabrikarekin egin duena bezalakoak. Cooperativa hoietan maketuak ez tira deituak izango, eta ongi zuzentzen bada, baserritar helburu hori, honela gordeko da euskera. Horregatik euskera (17) etsai bakar bat dago, Bilboko kopitalismoa, eta gañera klaro Madrileko zer hori, izenik eukiteko eskubidea eztaukana. Dana (19) libertade piska bat egon arte ezin egin izango dituzte normalki lankidetasun horreik. Ordurarte bide bat dago bakarrik, Eskaldunari bai atsegina egitea bere hizkuntza /atsegina eta uler-erreza/ zein dan Aita Imanolek hasi zuen bidea, eta guk Bilbotik lagundu dioguna. Urrengo egunean San Antolingo hermitara nindoanean, Amorebietako /Zornotzako/ estazioan Aita Onaindiarekin egin nuen topo; bera beste Sanantolinne (19) batera zioan. Pena (...) Esan zidan Epaltzako Sanantolinera beste fraile bat bialdu zuena (...) bere sermoia bota eban, ederki nik ulertzeko moduan. Bana nik bakarrik/ eta Atxanoko abade gazteak ere meza esan zuenak/ entenditu nuen. Preguntatu nien herriko guztieri /dandanak senideak/ eta inok ere etzion ulertu sermoi erreze eta alt (20) bakoa izan arren. Nora goaz hemendik? Euskera ezta beharrezkoa, ogia erderarekin erabazten da eta gainera euskera ezta atsegina. Hori bai, denak (21) egin zuela. Eta beti itzultzen gara lehengo topikura: bape aditu ezbelako zan euskera hori ona. Euskera ona da entendietan ez tauena? Erderaz batek berba eiten badau inok ez aditzeko moduan, denak esango dute pedante dala. Euskeraz aldrebes. Anaitasunaren gainean ere gauza berbera esan zitzaidan. Txarra dala Anaitasuneko euskerea dena entendietan dalako. Nora goaz holan? Badirudi zoroetxe batean gaudela. Euskaldunak eztaukagu zentzunik.

Jakingo duzu liturjiaren berriztasunarekin (22) baita ere kristinau dotrinea aldatu dala. Bilboko Obispaduak bialdu eutsen Euskaltzaindiari itzuli dezan euskerara. Euskaltzaindiak Manterolari eta Villasanteri/biak bizkaitarrak, baina batek be ezta euskeraz Bizkaiko moduan/eman zion itzultzeko enkargua. Eta egin dute erraz baino errezagot, baña ez bizkaieraz, ez iñola, erdi bizkaieraz erdi kiputzez, solezismoz eta neologismoz beteta. Ateo bat baño geiago poztu egingo da, zeren alan mutiko mutiko (23) euskaldunak ez tira kristau onak izango. Euskaldunak kristauak gara oituragatik.

---

(16) Galdakaoko.

(17) Euskeran.

(18) Bana. Horrela dio beste kopiak.

(19) Sanantolinne.. (beste Sanantolin batera zioan, dakar bigarren kopiak).

(20) Altura bakoa. (Honela, beste orrian).

(21) Zioten ongi egin zuela. *Ongi* hitza beste kopian jasoa da.

(22) *Berriztatzarekin*, dio beste kopiak. ¿Berriztatzarekin?

(23) Beste kopian behin bakarrik agertzen da *mutiko* hitza.



Baña opaizak aide batera utzita inork eztu entenditzen kristautasuna. Katezismoan ezta ikasten bape, ez talako ikasten amaren izkuntzan, eta loritoak dirudie mutilak. Liturjia latinez. Sermoiak /Jainkoaren berbea berbea esanekoa/ inork eztu aditzen. Eliza eta komentu guztiak atea itxiko balituzke (24) euskaldunak ezgenuke gure kristautasunean aldatuko. Kondizio hauetan Eliza Erromakoak obligazioa dauka Espainiko euskalduneri erderaz katekizetako.

Uste dut ezen gutxi gora bera nirekin batean etorriko zarela eritzi onetan. Ezen maite baduzu euskera, egizkizu aleginak zure euskaldun adiskideak /Batez ere bizkai-koak!!/konorte onera itzul-arazteko! (...) zaiezu "otoi" arrazoin guzti hauk explika-tzen, ezen zu/ zarion bezala/ audientzia haundia daukazu. Bilboko euskaldun-berri gazte, ardao-zale eta neska-zale bateri kasu gutxi egingo diote, baña zure hitzak duda gabe oyartzuna aurkituko dute euren belarrietan.

Honela egiten baduzu, zure memoria oroitzapen atseginezkoa izango da etorki-zuneko Euzkadi euskaldunear.

Zure zerbitzaria, denetarako:

Garesti

Gutun honen erantzunik ez nuen aurkitu eta ondoko bi urteetako berri-rik ere ez. 1959.eko Gabon agurraren arabera, ez du iduri harremanak moztu zirenik, baina Tauer-en bilduman bien paperak falta dira.

Orain emango ditudan bi eskutitzak 1961.ekoak dira eta Orixe zenaren hil-berria aipatzen dute. Arestik, bestalde, alaba gehienaren jaiotza jakineraz-ten dio bere adiskideari, eta euskal izena ezartzeko izan zituen trabak.

Eskuizkribua da bilbotarrarena, eta honela dio:

Llaudion, 1961, Irailaren 21 egunean.

Norbert Tauer jaun agurgarriari, Prahara.

Nere jaun eta adiskide maitagarria.

Zure bigarren txartela heldu zait honera. Asko estrainiatu naiz erderaz (gaztela-niaz) eskribiturik ikusi dudanean, ezpainenkien hain ongi zenekienik; poliglota trebea zarela ikusten dut, eta horregatik nire zorionak eskeintzen dizkitzut. Dena den bezala, euskeraz eskribitu bazenit, nik nahiago ukanen nuen, euskera mila bider maiteago baitut, gaztelania baino.

Txillardegiren liburua bidali nizun (nire ahorezkoa ematen dizut), baina zoritxa-rraz etzaitzu heldu. Zuk kontseilatutako zenidan bezala, hemengo korreoetara joan nin-tzen, baina bertan etzidaten batere argibiderik eman. Espainiako afizial enplegatuen artean, giza legea eta maitagarritasuna ez dira gauza oso ohituak. Beraz ihardetsi zida-ten, haek ez zirela paketeekin geratzen, liburua korreoan jarri banuen, bere destinora helduko zela, eta galdu bazen bidean galdu zela. Nik, honekin, naikoa eduki nuen; hasarratzearekin ez nuen ezer irabaziko, eta alde egin nuen. Eztira hemen gauzak behar bezala izaten.

(24) ¿Balituzte?

Beraz, berriz ere bidaltzea erabaki nuen. Baina zoritxarrez (zoritxar gehiegi dirudi egon dela gure liburuaren afer honetan) eznuen liburua Bilboko ezain dendatan aurkitu. Honela utzi nuen gauza, zure tarjeta hartu nuen arte. Joan den hilean Donostitik agertu nintzen behin, eta parte zaharreko liburu denda batean aurkitu nuen, eta erosi ere. Baina berriz erosi nuenetik gertatu zaizkidan gauza batzurenatik, osorik ahaztu zait bidaltzea. Gaur Bilbora heltzen naizenean eginen dudan aurreneko egin-tza hau izanen da, zertifikatu eta dagoen segurantzaz guztiak harturik, luzamentutan ibili gabe, liburua bidaltzea. Bider honetan galtzerik egonen ezteela espero dut.

Joan den hilaren azken egunean, nire andrea haur batez erditu zen. Erdiera, luzea eta mingarria izan zen, baina aso normala, eta orain nire primua (neskatxaño bat), osasun osoarekin (eta biri bortitzekin) etxean dago, negarrez eta zotinka, gu biok gauletan lo egiten utzi gabe. Jainkoak benedika dezala! Bataiatu, Kordoban parroko dagoen nire lagun on eta apaiz euskaltzale zutsu Martin Arrizubieta jaunak bataiatu zidan. Euskal izen bat imini nahi ukan nuen. Elizan eztago eragozpenik (gehienetan), baina juzgatuan ezteute uzten, ezin liteke. Zer egin? Maiatzaren eztaikit ze egunean San Nereo ahaztu bat dago; haren andre-izen erderazkoa Nerea da, ta bada-kizu zer esan nahi duen honek euskeraz. Honela nik deitzen diot: Nerea, alaba *nerea*. Beste alaba bat badadukat, izena badago hautatua: Zuria, hortik eztaikit nungo Santa Zúria bat dagoelako. Holako tranpetan ibili behar dugu, libertatearen aurkientza honetan. Jainkoak barkatuko gaitu!

Nere anaia nagusia sendatu da, Alemaniatic orain ekarri duten medizina berri bati eskerrak. Orain bere fabrika lan egiten du, bere kimik-analisietan. Pizkat mugitu behar izan naiz, zindikatuetatik eta mutuetatik, lehengo eskubideak eduki zitzan.

Orixe hil zen (jakinen duzunez), eta haren heriotzearen berria Madrileko arrodio ofizialetik eman zuten. Gauza batzuk eztera konprenitzen. Galera haundia izan da hori euskal literaturarako. Badirudi bere etxean paper eskribitu asko topatu direla. Hea etorkizun hurbil batean euskaltzaleok paper hoek liburu inprimatu batean irakurtzeko egokiera dadukagun. Orixeren heriotzea penagarria da, baina hau da biziak eta asturuak deklaraturikako legea. Zaharrak doazi, gazteak gortatza. Gaurko gazteok beste problema diferenteak ikusten ditugu, eta lehengoak ere bestela ikusten ditugu. Baina gure fedea eta esperantzak betiko berberak dira. Betiko bidean goazi, baina guri aldapa gora eta harritsu tokatu, eta ezin jautz dezakegu kaleko zapata dotorerik, ez plaza jantzako apreta arinik, zapata haltu eta burdinazko iltzedunak erabili behar ditugu. Gaurko denporan beste erremediorik gure euskera erdal kutsuduna baizik. Eskandalo hartzen dute zaharrek, baina etorkizunak judikatuko du. Dena dela, oker bagaude, kulpadunak bagara, aringarri bat bilatuko zaigu: gure fede ona eta malizia falta.

Euskaltzaindiaren aurtengo literatur sariak epaitu dira. Nobelakoa, bigarrenez, Eusebio Erkiagari eman zaio. Lehengo saria oraindik dago argitaratu gabe. Biak batera agertuko direla igurikitzen da. Teatrokoa berriz niri eman zait. Laster argitara dadin, aletinak eginen ditut. Nere komediak "Mugaldeko herriaren eginikako Tobera" deritza, eta oso teatro moderno eta zelaia da. Beste bat presentatu nuen: "Etxe aberatseko seme galdua eta Maria Madalenaren seme santua". Orain nire nobela zahar bat akabatuko dut: "Kibernia eta Jesus", eta beste baten asmoa dadukat: "Lehen ilargitarrak". Datorren urteko sariketara presentatuko ditut, hea fortuna dadukadan.

Gainera Blas Oteroren olerki guztiak euskeratzen hari naiz. Hau da erdal poeta bilbotar bat (aurten zuen artean egon da), oso euskal arimakoa, gaurko gaztelatar

poetarik famatuena. Lehengo egunean erregalatu zidan bere liburu baten txekozko itzulpena (Rezny Vitr, uste dut dela). Ahal baduzu, irakur zazu, euskal herriko aire bat bezalakoa baita. Lehengo egunean galdetu nion Oterori, hea dakien Vitezslav Nezval nor den, eta ezetz. Dena dela, zuk bidalirikako liburuan ikusi nuenez ezta hain poeta ugaria (behar bada antolojia naikoa eskas zelako). Zuk bidali zenidan liburua oso karioa izan zen, eta nirea oso merke (naiz eta birritan eros). Beraz zure zorrean aitortzen naiz. Eska zaidazu beste liburu bat, eta bidaliko dizut.

Idatz zaidazu karta luze bat, txartelak oso laburrak baitira. Mintza zakizkit hor-ko gauzen gainean, nola garbitu diren horko nazio-problema, eta batez ere ze har-eman dagoen amankomuntasunaren eta naziotasunaren artean. Anartean badakigu nun dagoen zure zerbitzari leial bat, garesti.

Aresti'tar Gabirel jaunari.

Praga'tik 1961'gko Urrillaren 26'ean

*Lludio'n.*

*Eskutitz au 1.630'garrena da*

Nere adiskide maitea:

Joan den illaren 21'gko zure eskutitz luze ta maitekorra bere egun egokian nere-gana eldu zan. Egun batzuek geroago zuk niri bialdutako "Peru Leartza'ko" izeneko liburua ere artu nuen. Bialtzearengatik nere eskerrik onenak ematen dizkizut. Damu dut liburu orren lenengo ijekia galdu dela bidean. Bainan "certificado" bezela bialdu ba-dezu, reklamaziño bat egin dezakezu orko idazketxean eta galtzea egiztatuta, ordainketa bat pagatu bearko dizute.

Eskatzen dizut niri barkatzeko ez dizudala lenago idatzi, bainan nere udatetik Praga'ra itzulita, lan asko izan dut nere etxean eta orain asi naiz nere adiskideei erantzuten.

Aur bat sortu zaitzuelako berria atsegiñez beterik irakurri dut. Eskatzen dizuet zuri eta zure emazteari bere zorionik bizienak onartzeko. Uste dut zure emaztea ta umea ongi daudela. Izen eder bat euskerazkoa eman diozue zuen umeari eta ziur nago euskaldun zintzoa izango dela.

Orixe'ren il-berriak asko illundu du nere biotza; ongi dakit zer nolako importan-tzi aundia izan du gizon ospetxu orrek euskal literaturan eta jakintzan. Nere libu-rutegian berak egindako liburu asko dauzkat eta aren olerkiak eta artikuluak euskal-aldizkarietan beti arretaz eta atsegiñez irakurri ditut. Benetan galtze aundia da aren eriotza Euskalerriantzat eta itxadon bear dugu aren lekua gazteak beteko dutela. Auxe bada munduan gertatzen dena: Urtedunak dijoaz eta gazteak datoz. Pozik ikusten dut azkeneko demboran euskal-soroan gazte asko agertzen diralata ayen artean zu ere lenengo lerroan zagoz. Zure lanari buruz zure azkenekoan idatzi dida-zuna arretaz irakurri dut. Ikusten dut azkarki lan-egiten duzula. Atzo artu nuen "Egan" zenbaki berrian zuk egindako gauza batzuek arkitu ditut. Orain asiko naiz irakurtzen.

"Olerti" izeneko aldizkaritxoaren bidez badakit datorren igandean "Olerti-Egun" bat egingo dela Larrea'n. Bertsoetan egindako agur bat ara bialdu dut jaian irakurtzeko.

Zure eskutitzaren azkeneko lerroetan aitazen dituzun problemari buruz ezin dezaket idatzi. Uste dut konprenituko duzula nere ixiltasunaren zioa.

Nik zuri bidaldutako liburua ere prezioa 20 korona da /80 peseta/. Zuk bialduta-ko ijeki biak prezio berdina daukate.

Ar itzazu, adiskide maitea, nere agurrik beroenak eta agindu nai duzun guzia zure.

P. S. Nere goraintziak zure emazteari.

Tauer'tar Norberta'ri.

Txostena amaitzeko, Aresti eta Tauer-ek Batasunaren Kutxako zinari buruz idatzi zutena ekarriko dugu. 1971.eko abuztuaren amaieran, Vicente Talón Ortiz kazetariak Tauer jaunari egindako ikustaldiaren berri eman zuen Bilboko egunkari batean. Eritzi hauek haserre bizia piztu zioten Aresti-ri eta "Anaitasuna" aldizkarian erantzun zion. Pragako euskaltzaleak irakurri zuen Arestiren izkribua eta harriturik idatzi zion egileari. Tauer-ek esan zidanez, erantzunik gabe gelditu zen bere gutuna, eta horrekin moztu ziren bien arteko harremanak.

Goazen orain gertakizunen harira. "Arba" izenordearekin argitaratzen zituen Talon-ek euskarari buruzko lanak. Europan zehar ibili ondoren, bere itzuliaren berri eman zuen, lehenik egunkarian eta, gero, lan horiekin osotutako liburuan. Ez dakit, orain, hitzez-hitz jasoa den egunkariko lana liburuan, ala zerbait orreztua ote duen. Nik esku artean daukadana, liburua da. Hara zer dioen Tauer jaunaren euskarari buruz:

"El profesor Tauer, gracias a su correspondencia y a las revistas que recibe, está al día en los problemas que se le plantean al vascuence. Y, como es lógico, la disyuntiva ortográfica surgida entre los que defienden a la "h" y los que desean borrarla por completo, ocupa también su atención. Preguntado sobre el tema me contesta:

— *Es curioso las pasiones que ha desatado este asunto. Yo, cuando escribo, debo de fijarme bien si me dirijo a un partidario o a un detractor de la "h", al objeto de no crearme complicaciones. De todas maneras, opino que la cosa no es tan grave. Ahí está el castellano, que tiene la "h", sin que, por ello, se dificulte en absoluto su expansión. Y cabe recordar que en algunas zonas del País Vasco francés la "h" se pronuncia aspirada, por lo que no pueden prescindir de ella. A mi me parece que lo importante no es que la "h" perdure o desaparezca, sino que se llegue a una unificación del vascuence que aparte, de entrada, las discusiones bizantinas (25)."*

Horixe da, gutxiz gora behera, iaz neri esan zidana ere. Batasunaren alde zegoen, zalantzarik gabe, Tauer jauna. Ez zion inolako etorkizunik ikus-

(25) VICENTE TALÓN ORTIZ. *Vasconiana a los cuatro vientos*. Edit. La Gran Enciclopedia Vasca (Bilbao, 1975), pág. 174. (Cap. Periplo por la Europa del Este. Checoslovaquia, pág. 169-176).

ten euskarari, batasunik gabe. Bazekien, bestalde, arazo honek sortu zituen istilu larriak euskaldunon artean eta beharturik zegoen adiskide bakoitzari atsegin zitzaion eran gutunak idaztera.

Zina haustea iduritu ote zitzaion Arestiri? Horrela dirudi bere lerroak irakurtzean: “*Talon-ek euskararen esistentziaren berririk eduki baino lehen, bagenedukan guk Tauer-ekin har-emana. Beraz, ez dauku gurutze zeltikoa-  
ren eramale horrek ezer berririk ekarri ezagutzara. Baina bai harri eta lur  
utzi gaituen irain bat, Norbert Tauer-en kontrako irain itsusi eta nardagarri  
bat. Zeren, beti iruditu baitzaiku, txeko idazlearekin urte askotako adiskide-  
tasun luzean, hura prestutasunaren eredu bat. Eta orain honela diosku  
Talon-ek, edo aditzera ematen dauku behintzat, behin Tauer-ek egin zuen  
zina (Euskaltzaindiak Arantzazun hartutako erabakiak beteko zituela; ikus  
Batasunaren Kutxa bertan agertzen baita zinaren sinatzaileen artean) dese-  
goki eta itsusiro apurtzen duela.*”

Orrialde hauetatik atera nahi dut gure urrutiko lagunaren aldetan, Talon-ek “El Correo Español”eko erdal orrialdeetatik dioskuna edo aditzera ematen daukuna, ez dugula sinesten. Asunto honetan maliobra itsusi bat ikusten dugu... (26).”

Berri hauekin larriturik, Talon jaunak idatzitakoaren berri eskatzen dio Tauer-ek Arestiri, nola ezagutu zuen aditzera eman ondoren. Eztabaidako liburuaren bi ale bazituen eta neuri eman zidan bat, eta Pragako bion adiskide bati utzi nion.

Hau da, Aresti eta Tauer-en arteko harremanen azken gutuna:

Gabriel Aresti jaunari.

*Bilbao-n.*

Nere adiskide maitea:

Gaur bertan “Anaitasuna” izeneko aldizkariaren 218-garren zenbakia eskuratu zait.

“Nork dio gezurra?” izena duen zure artikulua irakurri dut eta asko harrিতuta gelditzen naiz artikulua hontan esaten duzun guztiaz.

Neronek Tolon Jaunaren artikulua ez ditut irakurri eta horregatik ez dakit zertan “apurtu” dutan nere zina. Ikusten duzunez euskera batuan “Batasunaren Kutxa”-ren arauera idazten saiatzen naiz eta euskera batuaren alde ahal dudana guztia egiten dut.

Niri ezezaguna zait. Talon jaunak nere adiskide ta euskal idazle Berriotxoat’ar Balendin Anaiaren eskutiz bat ekarri dit; berarekin eta bere emaztearekin hemengo

---

(26) ARESTIAR. *Nork dio gezurra?* “Anaitasuna” (Bilbo) 218.alean, 1971.9.15.

hotelean hitz-egin eta nere etxera eraman dut berari nere euskal liburutegia erakusteko asmoz, Berriotxoana Anaiaren eskariaren arauera.

Nere aldetik eskatzen dizut Talon jaunaren artikuluak niri bidaltzeko. Har itzazu, adiskide maitea, nere agurrik bizienak eta agindu nahi duzun guztia zure menpeko:

Egileak beretzat egina zuen kopia denez, izenpetu gabe dago. Hitz-erdika besterik ez bada ere, gertakizun honek nahigabe haundia eman ziola, adierazi zidan. Horretaz mintzatzeko gogorik ez zuela sumatu nion, eta bertan utzi genuen arazoa. Estimua haundian zeukan Arestiren hileta-oroigarria, eta niri erakusteko eskuan zuelarik, honako ohar hau jalgi zitzaion: hil aurretik gertatu zuena!

Beste aldi baterako utziko ditut, hasieran esan bezala, literaturgintzako asmo, kezka eta nahigabeak agertzen dituzten gutun mamitsuak. Liburuetan esan ohi ez diren gogapenen altxorra da, askotan, gutunen bilduma.

Aresti jaio zeneko 50 urtekari, oroigarritzat eskaintzen dizkiot lerro hauek.